

# Soziolinguistika albistaria

33. zenbakia  
2018ko martxoak 10 – martxoak 22

## Soziolinguistika Klusterraren albisteak

---

### **Hizkuntza Erabileraren Kale Neurketaren emaitzak aurkeztu dira Nafarroako Parlamentuan**

Pasa den martxoaren 9an, Nafarroako Parlamentuko Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako Batzordeak gonbidatuta Soziolinguistika Klusterrak lan saio batean parte hartu zuen Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketaren emaitzak aurkezten.

### **Gure hizkuntza-ingurunea ulertu, hobeto elkar ulertzeko. Imanol Larrea**

Soziolinguistika Klusterraren zuzendariak hainbat hedabidetan argitaratutako artikulua.

## Ikerketak

---

### **EAEko bi urteko edo gehiagoko biztanleen hizkuntza-gasitasunari buruzko 2016ko datuak eskuragarri jarri ditu EUSTATEk**

(EUSTAT) Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %60,7 euskalduna edo ia euskalduna zen 2016an

EAEko biztanleen %60,7 euskalduna edo ia euskalduna zen 2016an Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) bi urteko edo gehiagoko biztanleen %60,7k zerbait bazekien euskaraz 2016an, ...

### **Euskaldunen kultur kontsumoari buruzko ikerketa egin du Siadecok Elkar Fundazioarentzat**

(Berria) Euskaldunen erdiek baino gehiagok ez dute euskal kultura kontsumitzen. Euskarazko kultura kontsumoa aztertu du Elkar fundazioak: euskaldun gehienek ez dute euskarazko produktuetara jotzen. Laurdenek ere ez dute ohiturarik euskarazko hedabideak...

### **"Euskarak Interneten duen egoera", 2017ko datuen txostena aurkeztu du PuntuEUS Behatokiak**

(Sustatu) PuntuEUS Behatokiak 2017ko txostena aurkeztu du. Hirugarren urtez jarraian euskarak Interneten duen presentzia aztertu du PuntuEUS Behatokiak. Behatokiak hiru alor neurtzen ditu: .EUS domeinuaren egoera, Internet Euskal Herrian eta euskararen egoera Interneten. Euska...

### **Zein balio izan dira gako Elhuyar, Ikastolen Elkartea, Elkar eta ARGIA aurrera ateratzeko?**

(ARGIA) "Euskararen biziberritze prozesuaren balioak" hitzaldia antolatu du Agirre Lehendakaria Zentroak Bilboko EHUren egoitzan, martxoaren 20 arratsaldean. Duela 50 urte abiatutako lau proiektuk, bere esperientziatik kontatu dute zein baliok lagundu dien enpresa aurrer...

### **Haurrentzako telebista programazioan galegoak duen egoerari buruzko txostena**

(A Mesa) Informe sobre a situación da lingua galega na programación televisiva infantil

### **Kataluniako Generalitateak hizkuntzen inguruko makroinkestak egingo du**

(GenCat) La Direcció General de Política Lingüística del Departament de Cultura i l'Institut d'Estadística de Catalunya (Idescat) inicien aquesta setmana el treball de camp de l'Enquesta d'usos lingüístics de la població 2018, que aportarà informació actuali...

### **Hizkuntza-politika ereduak azterketak txostena (CSLF, Québec)**

(CSLF) Le souci d'assurer la vitalité d'une langue commune est l'objet d'initiatives variées dans plusieurs pays, certaines pouvant être inspirantes pour le Québec, d'autres, plus récentes, méritant une veille quant aux résultats qu'elles pourront produ...

## Jardunaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak

---

### **UEUren Udako Ikastaroen eskaintza**

(Sustatu) UEUK (Udako Euskal Unibertsitateak) bere Udako Ikastaroen 46. edizioa izango du aurten. Hamaika ikastaro, jardunaldi eta topaketa izango dira ekainean eta uztailean zehar, Iruñean, Eibarren eta Baionan. Izen-ematea maiatzean irekiko da, baina egitaraua dagoeneko pre...

### **COMBI proiektua Europako Parlamentuan**

(Gipuzkoa.eus) Combi proiektuaren aurkezpenaren baitan, adineko pertsonen zaintzan eta osasun arloan, migratzaileek (eta hizkuntza gutxitua ez dakitenek) lanerako oinarritzko hizkuntza gaitasunak bereganatu ditzaten

## Liburuak eta argitalpenak<sup>1</sup>

---

### **Discovering Sociolinguistics. From Theory to Practice (Dick Smakman)**

(MacMillian) Soziolinguistikaren inguruko oinarritzko eskuliburua. Ikerketa metodologiaren artean, besteak beste behaketa bidezko kale neurketena kontuan hartzen du.

### **Euskara/Basque: the importance of status for the development of a pluricentric language. Gerhard Edelmann-en artikulua**

(HABE) This paper presents Euskara, the Basque language and its varieties (dialects), spoken in northeastern Spain and southwestern France. The political status of Euskara differs according to the regions where it is spoken. Euskaltzaindia, the Royal Academy of the Basque L...

<sup>1</sup>Dokumenturen bat edo informazio bibliografiko gehiago nahi izanez gero, jo zuzenean [HABE Liburutegira \(liburutegi@habe.eus\)](mailto:liburutegi@habe.eus), beraiek arduratuko baitira zure eskaria bideratzen.

## Bestelakoak

---

### **Euskararen normalkuntzako goi teknikari lanpostu eskaintza Osakidetzaren EPEan**

(Osakidetza) Hautaketa-prozesuan izena emateko epea 2018ko apirilaren 5eko 14:00etara artekoa izango da.

